

## 4. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>EGUNAK</b>	Azaroak 21 - 23 - 28 - 30	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	IVAPeko kanpoko gelategia 15. gela Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	10 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00 - 11:30
<b>ESKATZEKO AZKEN EGUNA</b>	Azaroak 3	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Azaroak 6 - 10
<b>IKASLE KOPURUA</b>	8 gehienez	<b>NORENTZAT</b>	C2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da C1 maila egiaztatuta izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	AEK		

### ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	4. HEko ahozkoak sortzen trebatzea. Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
<b>HELBURU ZEHATZAK</b>	Azterketaren aurkezpena egitea. IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jartotasuna, aberastasuna eta zuzentasuna. Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea. Komunigaitasuna zer den azaltzea. Jartotasunez berba egitea. Aberastasunaren gaineko argibide batzuk ematea. Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarrikoak diren akats larriak aipatzea eta aholkuak ematea.
<b>GAITASUNAK</b>	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 4. HEko ahozkoak sortu behar dituenean, egitura jakin bati jarraitzeko eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

<b>METODOLOGIA</b>	Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna. Bakarka edo binaka egingo da lan. Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.
--------------------	--



## 4. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

Lau egunetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Eta jarraian ahozko azterketaren entseguak egingo dira.

### PROGRAMA

Bikote batzuek bakarkako saioa egingo dute eta beste batzuek elkarreraginaren ariketa. Bikote bakoitzak bukatu eta gero, ikaskideek iritzia emango dute (gai/ez gai, zergatik, zer alde on izan dituen, zer eta nola hobetu ahal duen) eta irakasleak ere bere ikuspuntua emango du.

Bikoteak txandakatzen joango dira ikasle guztiek bakarkako saioak eta elkarreraginarenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, horrela eginda, eta egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek izan dituzten alderdi positiboak indartzeko eta txarto egin dituzten puntuak hobetzen saiatzeko parada izango dute.

### EBALUAZIOA

Ebaluaketaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea. Ebaluaketan ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute. Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

### APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

### ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

### BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

119,70 €

### PREZIOA

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena. EHAA, 2022ko uztailaren 8koa, 132. zk.

